

# *Tratamendu periodontal ez-kirurgikoa: autoebaluaketarako testa*

## *Egileak:*

Aguirre-Zorzano L A, Estefanía-Fresco R, Fernández Jiméñez A,  
García-De-La-Fuente AM

OCW-2017



## **AUTOEBALUAKETARAKO GALDERAK**

- Test motako galderak. Lau erantzun daude baina bat bakarrik da zuzena.
- Ondo erantzundako bakoitzagatik puntu bat gehitu.
- Gutxienez 26 puntu lortu behar dira edukiak menperatzen direla kontsideratzeko.

### 1. Zein kasuetan gomendatuko dugu Stillman eskuilatze teknika?

- A. Hortzoiaren atzeraegiteak daudenean
- B. Ez da batere gomendagarria plaka kanporatzen ez baita
- D. Bakarrik kirurgia ostean
- E. Hortz galduetan bakarrik.

### 2. Zein da egia?

- A. Kureta unibertsalak aurreko hortzetan bakarrik erabiliko dira.
- B. Kureta unibertsalak ez dira zorrotz behar.
- D. Kureta unibertsalak bai aurreko hortzetan, bai haginetan erabiliko dira.
- E. B eta C egia dira.

### 3. Begiratu irudia. Zein kuretaren egonkortze mota da?

- A. Lapitz- modifikatu heltzea.
- B. Ahur-oinazpiko heltzea.
- D. Ahur-modifikatu heltzea.
- E. Aurreko erantzun guztiak gezurrezkoak dira.



Egileak: Aguirre L.A., Estefanía R.,  
Fernández A., García A.M.

### 4.- Euskarriko Terapia Periodontala (ETP)-ri buruz aukeratu erantzun zuzena:

- A. Ahoa eta periodontoa urtean behin aztertu behar da, horregatik ETPren maiztasuna finkatuta dago epe horretan.
- B. Pertsonalizatua izan behar da, eta maiztasuna zehazteko faktore lokalak eta sistemikoak kontuan hartuko ditugu.
- C. Ezin da zehaztu maiztasuna, horregatik hilabetean behin etorriko dira pazienteak.
- D. Aurreko denak gezurrezkoak dira.

### 5. Aukeratu kureta unibertsala:

- A. Gracey 2R/2L
- B. Gracey 13/14
- D. Columbia 4R/4L
- E. Gracey 4R/4L



### 6. Aukeratu kureta espezifikoa:

- A. Gracey 2R/2L.
- B. Gracey 13/14
- D. Columbia 4R/4L
- E. Gracey 4R/4L



Egileak: Aguirre L.A., Estefanía R.,  
Fernández A., García A.M.

7. Aukeratu periodonto osasuntsuetan zein den eskuilatzeko teknikarik gomendagarriena:

- A. Stillman modifikatua bakarrik.
- B. Bass edo Stillman modifikatua.
- D. Periodonto osasuntsuak ez du eskuilatzerik behar, gaixotasunik ez baitu.
- E. Bass modifikatua bakarrik.

8.- Sustraiaren karrakatzea eta leuntzea (SKL) egin ostean, zein aldaketa izango da hortzetan?

- A. Aldaketa mikrobiologikoak.
- B. Aldaketa histopatologikoak+ klinikoak.
- D. Alkaketa klinikoak bakarrik.
- E. A+B

9.- Zer da egia Gracey kuretei buruz?

- A. 7 kureta sorta dira.
- B. 4 kureta sorta dira.
- D. Unibertsalak dira
- E. Ez ditugu zorroztu behar.

10.- Kontrol-mekanikoa eraginkorra izateko:

- A. Klorhexidinarekin konbinatu behar da.
- B. Hantura gingibala dagoenean, antibiotikoak erabiliko dira.
- D. Nahikoa da eskuilatze-teknika era egokian egitea.
- E-Aurreko erantzun guztiak gezurrezkoak dira

11.- Poltsa moderatuetan, zein izango da aukerazko tratamendua?

- A. Poltsa hauetan ezin da SKL egin
- B. SKL+MOTIBAZIOA+ AHA pertsonalizatua.
- D. SKL+MOTIBAZIOA+ AHA pertsonalizatua + kirurgia.
- E. Poltsa 8 mm > izan arte ez dugu tratamendurik egingo.

12.- 11/12 eta 13/14 Gracey kuretak noiz erabiliko ditugu?

- A. Haginetan, mihialdeko gainazalak karrakatzeko eta leuntzeko.
- B. Aurreko hortzetan masail- eta mihi-aldeko gainazalak karrakatzeko eta leuntzeko
- D. Atzeko hortzetan (aurreko haginak eta haginak) masail-aldeko gainazalak karrakatzeko eta leuntzeko.
- E. Haginetan, alde hurbilak eta urrunak karrakatzeko eta leuntzeko.

13.- 9/10 Gracey kureta noiz erabiliko dugu?

- A. Aurreko hortzetan zundaketa-sakonera 10 mm > denean.
- B. Aurreko hortzetan zundaketa-sakonera 10 mm < denean.
- D. Ebakortzetan, 3-4 Gracey kuretarekin, konbinatuko dugu.
- E. Haginetan, mihialdeko gainazalak karrakatzeko eta leuntzeko.

14.- Bir-ebaluazioa egiten dugunean, aukeratu zein/zeintzuk izango den/diren arrakastaren irizpide klinikoak?

- A. Eritemaren absentsia.
- B. ZS-ren murriztea ( $ZS \leq 4$  mm).
- D. ZS-ren murriztea ( $ZS \leq 4$  mm) + Zundaketan odoljario absentsia.
- E. Sustraien gainazalak gogorak eta lertzoak, zementu nekrotiarrez edo tindaketaz aurkitzea.



15.- 13/14 Kolumbia kureta noiz erabiliko dugu?


- A. Haginetan alde hurbilak karrakatzeko eta leuntzeko.
- B. Atzeko hortzetan (aurreko haginak eta haginak) masail- eta mihi-aldeko gainazalak karrakatzeko eta leuntzeko.
- D. Atzeko hortzetan (aurreko haginak eta haginak) alde urrunak karrakatzeko eta leuntzeko.
- E. Aurreko erantzun guztiak egiazkoak dira.

16.- Hantura gingibala ohi izatea, zeren arrisku-faktorea da?

- A. Ez da arrisku-faktorea, denok izan dezakegu gingibitisa.
- B. Hortzak galtzeko arrisku-faktorea da.
- D. Ez da arrisku-faktore bat; hortzak eta haginak babesten ditu.
- E. Aurreko erantzun guztiak gezurrezkoak dira.

17.- Begiratu irudia. Nora mugitu beharko du pazienteak bere burua  
1. koadranteko hortzetako masail-aldeko gainazalak eta 3.  
koadranteko hortzetako mihi-aldeko gainazalak ikusteko?

- A. Pazientearen burua beherantz
- B. Pazientearen burua gorantz
- D. Pazientearen burua eskuinerantz
- E. Pazientearen burua ezkerrerantz



Egileak: Aguirre L.A., Estefanía R., Fernández A., García A.M.

18.- 7/8 eta 11/12 Gracey kureta noiz erabiliko dugu?

- A. Aurreko hagineta alde hurbilak eta masail-aldeko gainazalak karrakatzeko eta leuntzeko.
- B. Hagineta alde hurbilak karrakatzeko eta leuntzeko.
- D. Atzeko hortzetan (aurreko haginak eta haginak) masail- eta mihi-aldeko gainazalak karrakatzeko eta leuntzeko.
- E. Aurreko hortzetan alde hurbilak eta masail-aldeko gainazalak karrakatzeko eta leuntzeko.

19.- Begiratu irudia. Goiko haginaren masail-aldeko sustrai hurbilaren alde urruna karrakatzeko zein kureta erabiliko dugu?

- A. Gracey 5/6
- B. Gracey 13/14
- D. Gracey 11/12
- E. Gracey 9/10



20.- Begiratu irudia. Zein da erabiltzen ari garen kureta?


- A. Gracey 9/10
- B. Gracey 11/12
- D. Gracey 13/14
- E. Gracey 5/6



Egileak: Aguirre L.A.,  
Estefanía R., Fernández A.,  
García A.M.

21.- Begiratu irudia. Nora mugitu beharko du pazienteak bere burua beheko hortzetako mihialdeko gainazalak ikusteko?

- A. Pazientearen burua beherantz.
- B. Pazientearen burua gorantz.
- D. Pazientearen burua eskuinerantz.
- E. Pazientearen burua ezkerrerantz.



Egileak: Aguirre L.A.,  
Estefanía R., Fernández A.,  
García A.M.

22.- Aho-barneko euskarriari buruz, aukeratu erantzun zuzena:

- A. Arku berean hartuko da euskarria.
- B. Hortzaren gainazal oklusal hurbilenean (1-3 hortz).
- D. Behatz euskarriak eskuaren pisua jasango du.
- E. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

23.- Zein izango litzateke Periodontitis agresiboaren tratamendurik eraginkorrena?

- A. Ez du tratamendurik behar.
- B. Sustraiaren karrakatzea eta leuntzea (SKL-a) soilik.
- D. SKL-a + antibiotiko konkretu bat.
- E. SKL-a + klorhexidina kolutorioa.

24.- Tratamendu periodontalaren denbora luzerako arrakasta zeren gain dago?

- A. Plaka-kontrol egokiaren gain.
- B. "Lotzeko epitelio luzea"-ren gain.
- D. Intsertzio konektibo motaren gain.
- E. Aurreko hirurak ez dira zuzenak.

25.- Peridontitisaren tratamenduan antibiotikoak beti emateak zein efektu kaltegarri ekar lezake?

- A. Mikroorganismoen erresistentziak handitzea.
- B. SKL-aren efektua ezabatzea.
- D. Periodontitisaren egoera okertzea.
- E. Mikroorganismoen zenbatekoa handitzea.

26.- Periodontitis agresiboaren tratamenduan, antibiotiko bat behar izanez gero, zein izango litzateke aukerazkoa?

- A. Ez du antibiotikorik behar.
- B. Amoxizilina 500mg + Metronidazol 500 mg, 3 aldiz/egunean, aste betez.
- D. Amoxizilina 500 mg + Azitromizina 250 mg, 3 aldiz/egunean, aste betez.
- E. Klindamizina 250 mg + Azitromizina 250 mg, 3 aldiz/egunean, aste betez.

27.- “Lotzeko epitelio luzea”-ren inguruan zein da erantzun zuzena?

- A. Tratamendu kirurgikoaren ostean ez da sortzen.
- B. Tratamenduaren ostean 2 aste baino beranduago eratzten da.
- D. Plakak eragindako hanturari eta poltsa periodontalen eraketari erresistentea da.
- E. Animalietan ez da inoiz sortzen.

28.- Noiz egingo dugu tratamendu kirurgikoa?

- A. Poltsa periodontal aktiboak ez daudenean.
- B. Poltsa periodontal ez-aktiboak, baina zundaketa-sakonera handia dagoenean.
- D. Poltsa periodontal ez-aktiboak, baina zundaketa-sakonera txikia dagoenean.
- E. Aurreko denak okerrak dira.

29.- Infekzio periodontalaren kontrolean zein da zuzena?

- A. Plaka-indizea  $>$  %20 izatea.
- B. Pazientearen motibazioa kontuan ez hartzea.
- D. Poltsa aktiboak mantentzea.
- E. Aurreko denak okerrak dira.

30.- Tratamendu periodontal ez-kirurgikoaren ostean, zeintzuk dira lortzen diren aldaketa mikrobiologikoak?

- A. Bakterioen guztizko zenbatekoaren handitzea.
- B. Mikrobiota azpi-gingibal patogenoagoa.
- D. Patogeno periodontal gutxiago.
- E. Aurreko denak okerrak dira.



31.- Tratamendu periodontalaren ostean, poltsen bir-kolonizazioaren arrazoiak zeintzuk dira?

- A. Mikroorganismoen gordailu diren amigdala-zutabeak eta mihia.
- B. Ehun periodontalak.
- D. Plaka gain-gingibalaren kontrola.
- E. Aurreko denak egiazkoak dira.

32.- Tratamendu periodontal ez-kirurgikoaren ostean, noiz ebaluatuko dira berriro ehun periodontalak?

- A. 6-8 hilabete pasatu ostean.
- B. 6-8 aste pasatu ostean.
- D. 3 hilabete pasatu ostean
- E. 3 aste pasatu ostean.

### 33. Zein da egia?


- A. Hortzetako haria gune zabaletan erabiliko dugu
- B. Hortzartekari eskuilatxoek tamaina bera dute
- D. Hortzartekari eskuilatxoak gune zabaletan erabiliko dira
- E. B eta D erantzunak egiazkoak dira

### 34.- ETP-ren barruan tartrektomia eta SKL egiten ditugu. Aukeratu erantzun zuzena:

- A. Tartrektomia aurreko hortzetan eta SKL aurreko-haginetan eta haginetan.
- B. Tartrektomia hortz guztietan, eta poltsa aktiboetan tartrektomia+SKL azpigingibala egingo da
- D. Tartrektomia hortz guztietan, eta poltsa aktiboetan tartrektomia+SKL gaingingibala egingo da (intsertzioa ez galtzeko)
- E. Tartrektomia+SKL kokapen guztietan egingo dira, baina bakarrik azpigingibala.

35 . Kureta honen alde ezberdinei izen egokia eman:

- A.
- B.
- D.
- E.
- F.
- G.
- H.



Egileak: Aguirre L.A., Estefanía R., Fernández A.,  
García A.M.